



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2009-05-27ko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta bederatzigarren urteko maiatzaren hogeita zazpian, arratsaldeko 19:00etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ezohiko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea – Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea jauna– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna, Itziar Arkonada Lizarraga andrea, Begoña Garmendia Vazquez andrea eta Igone Arruti Olazabal andrea.

Ez da etorri eta ezin etorria adierazi du.: Inork ere ez.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENENGO GAIA
AURREKO BILERAKO AKTA ONARTZEA.

2009ko otsailaren hogeita bosteko ohizko saioaren eta 2009ko martxoaren 25eko saioaren akten zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du udalbatzak hauek onartzea.

BIGARRENGO GAIA
ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

- 2009-04-20ko 16/2009 Dekretua: 2008 urteko laugarren hiruhilekoari dagokion zaborrari buruzko tasen errolda jendaurrean jartzea.
- 2009-04-20ko 17/2009 Dekretua: 2008 urteko laugarren hiruhilekoari dagokion urari buruzko tasen errolda jendaurrean jartzea.
- 2009-05-04ko 18/2009 Dekretua: Eguzki eraikuntzari egindako esleipena berrestea eta kopurua zuzentzea (akats informatikoa).
- 2009-05-11ko 19/2009 Dekretua: M.S. andereak baimenik gabe egindako lanak legeztatzea.
- 2009-05-18ko 20/2009 Dekretua: 15.127.904-Ek eskatutako obra baimena ez ematea.
- 2009-05-22ko 21/2009 Dekretua: Etorlur SAUk eskatutako lehen erabilerako baimena hainbat baldintzekin ematea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HIRUGARRENGO GAIA

ESKOLA BERRIKO AKURAPEN KONTRATUA AMAITZEA

2007ko irailaren 12an, 16/2007 alkatetza ebazpenaren bidez Udal honek erabaki zuen David Bernabe Navascues Ripalda jaunari Beizamako eskola etxea ezkerre alokatzea, horretarako errendamendu kontratu bat eaginez bertan baldintzak zehaztuz.

Kontratu honen bigaren baldintzak jasotzen duenez, kontratu honen prezioa 200€urokoa izango da hilean. Diru kantitate hau hileko lehen hamar egunetan ingresatua izango da Udalaren kontu korrontean.

Bestalde, hirugarren baldintzak jasotzen duenez, kontratu honen iraupena 12 hilabetekoa izango da kontratu hau sinatzen denetik kontatzen hasita. Kasu guztietan, kontratuaren indarraldia luzatu ahal izango zen Beizamako Udal planeamenduko arau subsidiarioetako R-21, L-2 eta V-2 eremuan esleitutako etxebizitza amaitu arte, lehen erabilera jasotzen duenean.

Ikusirik, kontratuaren ordainketak ez direla egin baldintzetan jaso izan den eran, atzerapen ugari izan direla, bai eta ez ordaintzeak.

Kontuan hartuz, bi mila bederatziko maiatzaren hogeita biei Udal honek Etorlur SAUk eskatutako lehen erabilerako baimena eman zuela.

Honenbestez, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Bakarra.- David Bernabe Navascues Ripalda jaunari eskola etxe ezkerre, udal ondasuna, uzteko errekeritzea eta honetarako 15 egunetako epea ematea, honakoa jakinarazi biharamunetik kontatzen hasita.

LAUGARRENGO GAIA

2010 URTERAKO BEIZAMAKO JAI EGUN OFIZIALA IZENDATZEA.

Martxoaren 17ko 65/2009 dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2010 urteko jaiegunen egutegia onartu zen.

Dekretuaren 2.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, dekretua argitaratzen den hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean egin behar dute tokian tokiko jaiegunen proposamena udalek eta beren lurralde ordezkarietara bidali.

Honenbestez, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Lehena.- 2010 urterako Beizamako jai egun ofiziala Ekainak 29a, San Pedro eguna, izendatzea.

Bigarrena.- Erabaki honen berri jakinaraztea Eusko Jaurlaritzak Gipuzkoan duen lurralde ordezkariari.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

BOSGARRENGO GAIA
BEIZAMAKO UDALERRIKO WEB ORRI OFIZIALAREN EDUKIA
AUKERATZEA.

Udal honek, 2006ko otsailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, herritarren egungo eta etorkizuneko zerbitzua hobetzeko, Beizamako Udalak Eudelek eta Izfek e-administratziora bideratutako sistemak martxan jartzeko proiektuan partehartzea erabaki zuen

Honekin lotuta, Udal honek, Urkome mankomunitateak udalei laguntzeko kontrataturiko teknikariaren, Juncal Calvoren, laguntza jasotzen du eta honek Beizamako udalerriko web orri ofizialaren edukia zein izan daitekeen proposatu du.

Guztia ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa adosten dute:

Bakarra.- Juncal Calvok, Urkomek kontrataturiko teknikariak, aurkeztutako dokumentazioarekin egindako proposamenean jasotzen den edukia onartzea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

SEIGARRENGO GAIA
2010 URTEKO EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORRA ONARTZEA.

Gaia behar bezala lantzeko astia izan ez denez, gaia mahai gainean utzi eta hurrengoan sakonago aztertzea erabakitzen du udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin.

ZAZPIGARRENGO GAIA
BEIZAMAKO UDALEKO LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILA
ORGANIKOA ONARTZEA

Gai hau aurrekoarekin erabat lotua dagoenez, gaia mahai gainean utzi eta hurrengoan sakonago aztertzea erabakitzen du udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

erabakiarekin.

ZORTZIGARRENGO GAIA

SAN LORENTZO ERMITAREN BERRIZTAPEN LANAK KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA IREKITZEA ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.

Beizamako San Lorentzo ermita berriztatu nahi da. Ekintza honek, 2008ko martxoaren 11ko 12/2008 Foru Dekretuaren bidez, Kultur Ondarea eta Interes Kulturalako Ondasunak gorde, babestu eta hedatzeko diru laguntza programatik 10.000.-€ko dirulaguntza jaso zuen.

Proposatutako kontratazioari Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legearen jasotako esleipenerako bide eta moduak ezar dakizkioke.

Esleipen-jardunbide hau aipatutako legearen 153 eta 155 artikuluetan aurreikusitako jardunbide negoziatua erabiliz izapidetuko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena publizitaterik gabeko jardunbide negoziatuaren bidez egin daiteke, Administrazio-Baldintza zehatzen agirian zehaztutako irizpide objektiboak erabiliz, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 161.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Guztia kontuan hartuz, Udaltzarak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako San Lorentzo ermitaren berriztapan lanak kontratatzeke espedienteari hasiera ematea onartzea, obrarako baldintza pleguetako aurrekontuaren arabera lanak burutz.

Bigarrena.- Aipatu kontratua gauzatzeko, jardunbidea eta esleipena eta lizitaziorako oinarri bezala erabiliko diren Baldintza Juridiko Ekonomiko eta Administratibo Zehatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

Hirugarrena.- Aldi berean, aipatu kontratazio-jardunbideari hasiera eman eta espedientean agertzen diren enpresei gonbidapenak luzatzea, beren proposamenak aurkez ditzaten, eskaerak aurkezteko epea **15 egun naturalekoa** izango delarik, gutuna jasotzen duten biharamunetik kontatzen hasita.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BEDERATZIGARRENGO GAIA GALDERA ETA ESKAERAK

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

ONARTZEA, BADAGOKIO, BEIZAMAKO OSTATU ZAHARRA TABERNAREN USTIAPEN ESKUBIDEA JARDUNBIDE NEGOZIATU BIDEZ ESLEITZEKO ESPEDIENTEA IREKITZEA.

Beizamako Udalbatzak 2009ko urtarrilaren 19an egindako osoko bilkuran, Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea esleitzeko espedienteari hasiera eman zion eta jardunbide irekian agindu behar zuten baldintza ekonomiko administratibo partikularren pleguak onartu zituen.

Dagokion iragarkia, 2009ko martxoaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen proposamenak aurkezteko epea irekiz. Epea igaro ondoren inongo proposamenik azaldu ez zenez, Udalbatzak, 2009ko apirilaren 29n egindako osoko bilkuran irekitako jardunbidea hutsik deklaratzeko onartu zuen.

Beizamako ostatu-zaharrak, ostalaritza ekipamendua izateaz gain, zerbitzu publiko izaera du. Zentzu honetan, ostatuak, alde batetik, nagusiki herritarren zerbitzuarekin lotura du, eta bestetik, Udalak sustaturiko jardueren azpiegitura lagungarria izango da, Udalak hala erabakiz gero.

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako ostatu zaharra tabernaren ustiapen eskubidea jardunbide negoziatu bidez esleitzea presazko eta premiazkoa deklaratzeko.

Bigarrena.- Beizamako ostatu zaharra tabernaren ustiapen eskubidea jardunbide negoziatu bidez esleitzeko espedientea irekitzea.

ONARTZEA, BADAGOKIO, BEIZAMAKO OSTATU ZAHARRA TABERNAREN USTIAPEN ESKUBIDEA JARDUNBIDE NEGOZIATU BIDEZ ESLEITZEA.

Beizamako Udalbatzak 2009ko urtarrilaren 19an egindako osoko bilkuran, Beizamako "ostatu zaharra" taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea esleitzeko espedienteari hasiera eman zion eta jardunbide irekian agindu behar zuten baldintza ekonomiko administratibo partikularren pleguak onartu zituen.

Dagokion iragarkia, 2009ko martxoaren 4an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

argitaratu zen proposamenak aurkezteko epea irekiz. Epea igaro ondoren inongo proposamenik azaldu ez zenez, Udalbatzak, 2009ko apirilaren 29n egindako osoko bilkuran irekitako jardunbidea hutsik deklaratzeari onartu zuen.

Ondoren, Beizamako udalerrarentzat gisa honetako azpiegitura bat edukitzeak suposatzen duenaren jakitun, Udalak interesdun potentzialen bila hainbat kontaktu egin zituen inguruko ostalaritza eta sukaldaritza eskolarekin, batetik, eta inguruko egunkarietan (hitza) prozesuaren berri emanez. Guzti honek bere fruitua eman zuen, hiru interesdun azaldu ziren.

Azaldu diren interesdunak ondokoak dira:

- Luxio Aizpuru Azpiazu
- Angel eta Carlos
- Gorka Igartua eta Markel Sanz

Beraiek aurkeztutako dokumentazioa eta egitasmoa aztertu ondoren, Udalbatzak honako puntuaketa ematen die:

- Luxio Aizpuru Azpiazu
 - Ustiakuntza proiektua: 5 puntu
 - Kanona hobetzea: 9,5 puntu
 - Eskaintzaren barianteak: 2 puntu
 - Guztira: 16,5 puntu**
- Angel eta Carlos
 - Ustiakuntza proiektua: 5 puntu
 - Kanona hobetzea: 10 puntu
 - Eskaintzaren barianteak: 4 puntu
 - Guztira: 19 puntu**
- Gorka Igartua eta Markel Sanz
 - Ustiakuntza proiektua: 15 puntu
 - Kanona hobetzea: 6 puntu
 - Eskaintzaren barianteak: 10 puntu
 - Guztira: 31 puntu**

Beraz, aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Beizamako “ostatu zaharra” taberna-jatetxearen ustiapen eskubidea Gorka Igartua eta Markel Sanzi esleitzea, behin-behineko izaeraz.

Bigarrena.- Erabaki honen berri izan ondoren, 15 eguneko epea ematen zaio baldintza zehatzen agirian jasotako dokumentazio osoa Udalean aurkezteko eta behin betiko bermea osatzeko.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hirugarrena.- Aipatutako epea bete eta beharrezko dokumentazioa atxiki ondoren, esleipena behin betikoa bihurtuko da gainontzeko izapide edo erabaki gehigarriren beharrik gabe.

Laugarrena.- Esleipena behin betiko izaera duenetik, guztia formalizatuko duen kontratua 10 egunetako epean sinatu beharko da.

Bosgarrena.- Erabaki honen berri interesdun guztiei jakinaraztea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

LUDOTEKAKO BIGARREN MONITORE BEZALA KONTRATATZEA.

Beizamako Udalak, urtean zehar ludoteka zerbitzua ematen du herriko haur eta gaztetxoentzat. Adinen aldetik haurren bi talde oso ezberdinekin topo egiten du orain arteko begirale bakarrak. Honi aurre egiteko, monitorea kontratatze beharra izango duenez, dagokion iragarkia egin zuen "hitza" egunkarian, inguruko interesdunek izena eman zezaten. Aurrekoaren ondorioz, "curriculum" batzuk jaso dira Udal honetan. Hauek baloratu ondoren, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Bakarra.- Aroa Otaegi Eizmendi kontratatzea ludotekako monitore bezala.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

**R-21 GUNEAN ERAIKI DEN TRANSFORMAZIO ZENTROA IBERDROLARI
LAGATZEA.**

Udalerrian sortutako elektraindar behar berriari erantzuna emateko asmoz, Beizamako Udalak 2007ko irailaren 27an Iberdrolarekin sinatutako hitzarmenaren ondoren, R-21 gunean transformazio zentro bat eraiki behar izan du. Zentro hau Udalaren jabetzakoa da, bere erabilpen elektriko eta obra zibila barne, inongo kargarik gabe, bere erabilpen, eskubide eta zortasunekin.

Aipatutako zentro hau, ATH-2009-66 eta ATD-2009-26 proiektuen arabera eginga izan da.



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurreko guztia kontuan hartuz eta 2007ko irailaren 27an Iberdrolarekin sinatutako hitzarmenean xedatutakoarekin bat, Udalbatzak bertan daudenek, Luis Javier Oregi Iñurrieta zinegotziaren aurkako botoarekin eta gainontzekoen aldeko botoarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- R-21 gunean eraiki den transformazio zentroa Iberdrolari lagatzea.

Bigarrena.- Ramon Gerrikagoitia Bengoetxea, alkatea, lagapena gauzatuko duen hitzarmena eta beharrezko dokumentuak sinatzeko eskuordetzea.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.

Gaiaren premiatasuna ikusirik, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondoko gaia bertan eztabaidatzea erabakitzen dute:

ETORLUR, S.A.U.ri KUDEAKETA ESKAERA EGITEA

2008ko azaroaren 25eko 74/08 Foru Dekretuak, Landagipuzkoa 32 programaren barruan dauden udalerrietan Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako azpiegitura balioaniztunetarako inbertsioak aukeratu eta gauzatzeko prozedura arautzen zuen. Beizamako Udalak, honen barruan, plaza eta udaletxeko eraikinean ekipamendu soziokulturaleko eranskinaren proiektuaren inbertsioa finantzatzeko diru laguntza eskaera aurkeztu zuen.

Aurrekoarekin lotuta, proiektu guztiak bere bidea jarrai dezan eta ETORLUR-EK (ETORLUR GIPUZKOAKO LURRA S.A.U.) obrak sustatze aldera ondasun higiezinaren edukitza eta behin-behineko okupazioa egin behar du.

Guztiaren harira, Udal honek 2009ko otsailaren 25ean ospatutako Osoko Bilkuran erabaki zuen, besteen artean, aipatutako proiektua aurrera eramateko, Etorlur-ek beharrezkoa duen lagapena egitea.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Udalbatzak bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Etorlur, S.A.U.ri kudeaketa eskaera egitea, Herriko plazaren birantolakuntzaren exekuzio proiektua esleitu dezan, Landagipuzkoa32 egitasmoaren barruan.

Erabaki hau izapidezko egintza soila besterik ez da eta beraren aurka ezin da inongo errekurtsorik jarri.



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Aztertze ko beste gairik ez dagoenez, 20:00etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.